

HERNANIK kronika

2003 urtea
Maiatzak 22
Osteguna
Alea: 777
www.kronika.net

JOXAN REKONDO EA-EAJKO ZERRENDA BURUA

“Herri parte hartzea kanalizatu nahi dugu Udaletxearekin lankidetzan”

■ Joxan Rekondok dio Udal Aurrekontu parte hartzaleen dinamikan sakonduko duela ■ Planteatzen du Ereñotzu eta Epelek auzoko administrazio propio bat izatea, bere programa eta partida ekonomikoarekin.


JOXAN REKONDOK KANDIDATURA AURKEZPENEAN AZALDU ZITUEN EA-EAJREN PROGRAMAREN ARDATZ NAGUSIAK: herritarren eta Udal Taldearen parte hartzea Udaletxean, normalizazioa eta etxebitzitza. Kirolean, plan estrategiko bat proposatzen du, eta berdintasuna generoan ez ezik, ikuspegiorokorren planteatzen du.

■ Kandidatura aurkezpenean adierazi zenuen bideak jarriko zenituela hauteskundeetan parte hartzea galerazi zaien herritarrek udal erabakietan parte hartzeko. Nola konkretatu hori?

JOXAN REKONDO: Abiatu da herri parte hartzea kanalizatu nahi dugula Instituzioarekin lankidetzen. Guk printzipio batzuk planteatzen ditugu orain eta formula konkretuak aztertu egin beharko dira aurrerago. Batetik, Udal Taldearen parte hartzea erraztuko dugu informazioa egoki emanet, iniziatiabak kontuan hartuaz eta abar. Legislatura honetan guk ez dugu erreztasun hori izan. Bestetik, Udal Aurrekontu parte hartzaleen dinamika hori ez dugu hau-tsiko. Guk hori kritikatu izan dugu, baina, dituen gabeziengatik eta formula horretan sakondu egingo dugu.

Arau Subsidiarioen errebisioari ere berehala helduko diogu, eztabaida zabaldu eta 8-10 urteko herri modelo kon-tsentsuatuena definitzeko.

Parte hartzetako horren barruan planteatzen dugu baita ere Ereñotzu-Epelek auzoko administrazio propio bat izatea.



Joxan Rekondo EA-EAJko zerrenda burua.

Formula aztertu egin beharko da, baina, uste dugu auzoaren berezitasunagatik, distantziagatik eta abar, Udaletxeko harremana eta beste zenbait zerbitzu bertatik bideratu litekeela.

■ **Etxebitzitan, zein neurri hartuko dituzue prezioei eusteko?**

Gure ustez, azken 12 urteotan etxebitzitza publikoaren politika ona egin da Hernanin. Horren lekuko dira Antziolako 350 etxeak, Renfeko ia 60ak, Sagastian dioazenak eta abar. Baina, 150.000 euro inguruaren ordaindu lezakeenarentzat

etxerik ez da egin, eta jende multzo horrentzat 175-200 etxe tasatu egin nahi ditugu. Horretarako promotorrekin hizarmena lotu beharko dira, baldintzak jartzeko eta abar.

Horiez gain, bi urte barru inguru hasiko dira egiten Sagastian protekzioko 350 etxebitzitzak eta legegintzaldi bukaerarako hor izango ditu erosleak.

■ **Normalizazio politikoaren zer asmo du EA-EAJk?**

Gure helburua da normalizazioa lortzea elkarbizitza errekuperatuz. Horri etengabe eutsi behar diogu. Asmatzea

JOXAN REKONDO

Joxan Rekondo orain dela 44 urte jaio zen Hernanin, Karabel auzoan. Gaztetatik hasi zuen militantzia politikoa, eta 27 urte egin ditu, hasi EGI, Eusko Alderdi Jeltzalea, eta Eusko Alkartasunen. Hernaniko Alkate izana 1991-1999 bitartean, eta azken 4 urteotan EA-EAJko bozeramale izan da oposizioan. Legegintzaldi honetan, Gipuzkoako Bartzar Nagusietan aholkulari lanetan aritu da. Denbora librean irakurtzea eta idaztea ditu gustoko.

zaila da, kolore eta pentsakera ezberdinako jendea dago, normalizazioaz ere idea eta asmo ezberdinak daude... Hori dena elkarlanean jartzeari zaila da proiektu ezberdinaren ezberdintasun hori errekonozitzen ez baldin bada hasiera-hasieratik. Elkarlanean jartzeari hori da legegintzaldi honek gure goiburuetako bat.

■ **Beste puntu nagusiak?**

Normalizazioa, etxebitzitza eta parte hartzeari gain, beste puntu nagusiak enpleoa, berdintasuna eta ingurugiroa dira. Enpleoan, industriari lur zoru eta azpiegitura egokiak eman behar zaizkio eta jendea formatu. Berdintasuna, zentzu zabalean planteatzen dugu: generoan ez ezik, ikuspegia sozialean, zibikoan eta abar. Ingurugiroan, Urumea eta Santa Barbara berreskutzatzen hasiko gara. □

EA-EAJREN PROGRAMA (LABURTUTA)

PARTE HARTZEA

Udal Talde politikoek Udalaren martxan benetako parte hartzea izatea erreztu. Aurrekontuak prestazera-koan parte hartzean sakondu. Ereñotzu-Epele desentralizatu.

ETXEBIZITZA

Etxebitzitzaren prezio garestien aurkako neurriak. 1992an etxebitzitza publikoak eraikitzeo hasitako politika jarraitza, Jaurlantzarekin elkarlanean. Sagastia bultzatzea: 350-400 etxebitzitza publiko 4 urteetan, eta "prezio tasatuko" etxebitzitzen politika: 175-200 etxe tasatu.

HERRI GARAPENA, ESKUALDEAREKIN BATERA

Lurraldearen sustapenarekin eta inbertsio publikoarekin zerikusia duen guztia landu, jarduera ekonomikoak, prestakuntza, enplegu eta abar sortzeko. Txillida-Lekuren inguru Hernaniko kulturgintza eragin.

KIROLA

Plan estrategiko bat egin, herriko kirol eragile guztiak konprometituko dituena eta Patronatuaren eskaintza egokituko duena herrian kirol gehiago egin dадin. "Hernani sasoian" programa martxan jarri.

HEZKUNTZA

Hernanin kalitateko hezkuntza es-kaintza bultzatzea. Haur eskola es-kaintza osatzea.

EUSKERA

Euskaraz hitz egitera estimulatzeko giroa sortu eta belaunaldien arteko artikulazio linguistikoa hobetu.

INGURUGIROA

Urumea eta Santa Barbara berreskutzeko plana. Enpresak eremu erresidentzialetatik industri poligonoetara aldatzea.

GIZARTE ZERBITZUAK

Hirugarren adinari lehentasunezko arreta, kalitateari dagokionez. Berdintasuna, zentzu zabalean.

TRAFIGOA ETA SEGURTASUNA

Trafikoa berrantolatu: Helburuak: oinez ibiltzea bultzatu; barruko ibilbideetan kotxez ibiltzea zigortu; erdigunean txandakako aparkalekuak; errepide sarea optimizatu; garraio publikoa bultzatu.

GARAYAR AUTOBUSAK



Zerbitzu diskrezzionalak (ESKOLARRAK)

Autobus serbitza
Linea erregularrak

Hernani-Aiete-Donostia-Aiete-Hernani
Andoain-Urnieta-Hernani-Donostia-Hernani-Urnieta-Andoain

Jauregi bailara 17 - Tel.: 943 556 658 / 943 556 662
Faxa: 943 331 208 e-maila: mgarayar@facilnet.es
20120 Hernani (Gipuzkoa)

CALCARRETA DE ALTAI

Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

GAUR 16:00 ETATIK AURRERA

ERREMONTA JAIALDIA:

- partidua: Larrea - Urrutia / Matxin IV - Lander
- partidua: Altuna I - Iriarte / Agirresarobe - Lizaso
- partidua: Altuna II - Etxabe / Zeberio II - Etxeberria III
- partidua: Zeberio I - Aizpurua II / Iribarren - Etxeberria II

www.kronika.net

kronika

Interneten helbide berrian

ZINGI-ZANGA

Jatetxea

Eguneko menuak

Asteburuan afariak

Florida 54
943 33 03 97

Galarretan parke enpresariala bultzatzeko hitzarmena lotu dute Udalak eta Sprilurrek

■ Bihar Plenoan intentzio protokoloa eztabaidatuko dute ■ Fraile: "Ekimen honekin Udalak erabat kendu du herriaren kalterako zen hipermerkatua egiteko mehatxua."

OTSAILEAN Alkateak adierazi zuen Kronikan, Udalak Galarretan Parke Enpresariala bultzatzen ari zela, ikerkuntza eta teknologia ardatz izango zituen parke enpresariala, hain zuzen ere. Gestioek aurrera egin dute, eta Udalak eta Sprilur konpromiso batera iritsi dira parke enpresarial hori aurera ateratzeko.

Manuel Fraile Hirigintza buruaren esanetan, ekimen horrekin bukatu dira herrirentzat eta merkatarien zurtu ona izango ez zen hipermerkatu baten mehatxuak. Era berean Frailek uste du aukera paregabeak ekarriko dituela lanpostu berriak sortu eta herriaren garapen sozio-ekonomikoa bultzatzeko. □

Beste gai batzuk
Bestalde, aste honetako Hirigintza batzordeak onartu zituen aipatzeko beste bi puntu ere: batetik, Ave Maria parkeak beste 6.500 metro gehiago izango ditu (ia 30.000 denera). Bestetik, onartu da Martindegin Papaenean zona libre bat eta bidea egiteko konbenioa eta Plenora dijona, bihar. □

Zerbitzu Publikoetako Sailak Lizeaga kaleko espaloia zabaltzekoa du, herri bideetako obren barruan

■ 2002tik egindako lanen balorazioa egin dute eta egitasmoen berri eman.

ZERBITZU publikoen sailak 2002an eta aurtengo urtean kaminuak berritzen egindako obren balorazioa egin du eta aurtengorako onartuta dauden zenbait lanen berri eman du.

Iaz 200.000 eurotik gora gastatu ziren herri bide eta lurzorua konponzten. Elizaldean lehengo futbol kanpoan urak sanean eta brea bota dute. Erdia parkin eta erdia futbol kanpo geratuko da. Horrez gain, plazako parea altxa eta indartu dute. Osiñagan, Loidiko eta Ali- moiko zubiak zabaldu eta barandua jarri dute eta Txonkueneko eta Errotarango zubietan barandua jarri dute. Otsuenea-Amunto bidean urak bildu eta *todouno* botea dute. Ereñotzu bailaran, bideari eutsi diote 2 tokitan Epeleko-Larregain bidean eta auren brea botatzeko dute. Latxe-Izeneder bidean *todo unokin* konponketak egin dituzte eta Zubiegi barandua jarri; Ugaldetxo-Aparrain-Pikoa



Jesus Rebollo Zerbitzu Publikoetako burua eta Antonio 'Sansonategi' guarda, Pardiola-Oinddi bideko lubiziari begira.

Etxeberri bidea *todounokin* repasatu dute eta urak biltzeko erretenak berritu. Herri barruan, Txantxillatik Gai Mur eta Inmaculada aldera oinezko bidea zabaldu dute. Santa Barbara aldean, Arrigoain-Marrakanea (Saretxo) bideko harkaitzak pustatu, todo unoan

bota eta uren saneamentua egiten ari dira; Alberro-Agerre bidean kunetak hormigoizkoak jartzen ari dira; Arrikarte-Marrakenea-Jaurregiko eskolak bidean eta Jauregi-Sorgintxulo bidean brea bota eta hormigoizko kunetan jarriak daude.

Lizeagako espaloia
Aurtengo, egitea onartuta dauden lanak dira Lizeagako Arantzazu plaza asfaltatu eta aparkalekuak baterian jartzea, Lizeaga kalean espaloia zabaltzea bidea estututa; Osiñagan, Arriatsurako aldapa asfaltatzea; Pardiola-Oinddi bidean luizia egin da eta konpondu eta bideari eustea; Barkaiztegi baserriari etxeraino hormigoia botatzea eta abar.

Jesus Rebollo Zerbitzu publikoetako buruak Kronikari esan dionez Udaleko azpiegitura erabilida da lanaren parte bat egiteko eta brigadako langileak ere aritu dira kaminok berritzeko lanetan. Horrela prezioa jeitsi eta gehiago egiteko aukera izan da. □

ESKOLA KIROLA



Eskolarteko futbol finalak jokatu zituzte taldeak, Zubipen.

Elizatxo A eta Langile txapeldun futbolean

AURREKO igandean eskolarteko futbol finalak jokatu ziren Zubipen, alebin kategorian. Mutiletan, Elizatxo Ak eta Urumeak 4na egin zuten, eta penalitan Elizatxo Ak asmatu zuen gehienetan. Neskestan, Langilek 4-2 irabazi zion Elizatxori. □

Futbola	Finalak	
Ale. M ut.	Langile B - Langile C	7-8 postua
Ale. M ut.	Urumea A - Iñaki acuñada	3-7
Ale. M ut.	Langile A - Elizatxo B	3-4 postua
Ale. M ut.	Elizatxo A - Urumea B	1-2 postua
Ale. Nesk	Langile - Elizatxo	4-4
Ale. Nesk	Urumea - Oñatea	1-2 postua
		4-2
		1-1

HITZ BITAN



Udal ordezkariak Ereñotzuko etxeak dioazen tokian.

✓ EREÑOTZUKO ETXEAK

Urbanizazio proiektua martxan. Ereñotzun Protekzioko 12 etxebizitzak egiteko urbanizazioa martxan da. Udal ordezkariak, arkitektoak eta abar Ereñotzun izan ziren atzo egoera bertatik ikusten. Urbanizazio lanak irail alderako hastea espero da. Etxeak egiten hasteko, berriz, oraindik beste urte erdi pasa beharko da. Etxea egokitzen zaientzak kooperatiba sortzeko bidean dira eta kooperatiba formalizatzen denean etorriko da proiektua, eta gero obrak. Protekzioko etxeek gain, beste hainbeste egingo dira libreak. Manuel Frailek operazioaren garrantzia azpimarratu du eta adierazi du aurreko zortzi urteetan egin ez dena orain lau urteetan egin dela.

✓ DANTZARI FESTA

Joxanton Artzak hasiko du gaur Txalaparta festa. Joxanton Artzeren hitzaldiak emango dio hasiera aurtengo Txalaparta festari. Aurtengo edizioa Jexux Artze txalapartari zenaren omenezkoa izango da eta bere anaia Joxanton Artzak Ibarrean zeharka-meharka, mendian gora eta behera hitzaldia emango du gaur, 19:30etan Biterin.

✓ BILDU HERNANI

Ekitaldi politikoa gaur Plaza Berrian. Bildu Hernanik ekitaldi politikoa egingo du gaur Plaza Berrian, arratsaldeko 19:30etan. Bildu Hernanik jakinarazi du arratsaldeko 19:00etan aurrera irratiz emango duela ekitaldia FM 92.9an, eta herritarrei dei egin die etxeko bafleak lehiora atera eta irratsaioa jartzeko. Biher, afaria deitu dute Oialumen eta txartelak salgai daude Oinddi, Garin eta Txilin. Larunbatean, berriz, bilkura deitu du Bildu Hernanik, 12:00etan plazan, eta arratsaldeko 20:00etan manifestazioa aterako da plazatik *Euskal Herria aurrera putxerazorik ez* lemarekin. Bildu Hernanik dei egin die herriko "abertzale eta ezkertiarrei" ekitaldietara azaltzeko. □

FRANCISCA LEONET PERURENA

ANDREA

Atzo hil zen, 73 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-



Senarra: Jose Mª Pagola; seme alabak: Axun eta Joakin Etxeberria; Patxi eta Lourdes Aukia; Isidro eta Mª Carmen Orbegozo, Julian eta Jone Ugalde, Ignacio eta Ines Imaz, Imaculada eta Jesus Mª Otermin, Carmen eta Imanol Goikoetxea, eta Mila eta Agustin Usarralde; bilobak: Garbiñe eta Jokin, Nerea eta Axier, Mirari eta Julen, Garazi, Maialen eta Josu, eta Alex eta Oier; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskaezin dizute eta arron etor zaizteela GAUR, OSTEGUNA 22, arratsaldeko ZAZPIRETAN, (HERNANIKO) SAN JUAN BAUTISTA parroki elizan, gorputza bertan dela egingo den hiletarra. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2003ko maiatzaren 22an

Helbidea: Osiñaga auzoa 25, Txabolategi Baseria

OHARRA: Gorputza DONOSTIALDEKO TANATORIOAN dago. (Errekalde auzoan).

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaina: 943 333288
- DYB: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Etxebeste Elkano 2
☎ 943 552087
- Gauetan: Urbistondo Lasarte. San Francisco 1B
☎ 943 366567

LAN ESKAITZA

TOPAGUNEAK EKIPO INFORMATIKOETAKO TEKNIKARIA behar du Informazio gehiagorako: Dobera Euskara Elkartera (Larramendi 11) edo deitu **943 33 27 99** ra.

IRAGARKI MERKEAK

Tabernako sukaldean lan egiteko pertsona bat behar dugu. Interesatuek deitu goizez telefono honetara: **943 55 67 06**